



HIRU3 BULETINA

Kaixo, **lagunok!**

Gabonetako oporrak ederto hasteko, hilaren 19an **Hiru3 jaialdia** egingo dugu. Bertan elkar ikustea espero dut. Idatzi diozue **gutuna Olentzerori?** Gogoratu **webgune berezia** dugula horretarako! Bestalde, aurtan ere, **Zinegabonak** ekimena jarriko dugu martxan euskarazko filmak doan ikusteko. Ez galdu aukera!

HIRU3 JAIALDIA

Laster, **Hiru3 jaialdia** egingo dugu **Euskalduna Jauregian**, Bilbon. Zatoz zeu ere! **Abenduaren 19an (larunbata)** izango da, **13:00etan**. Ikuskizun zoragarri honetan denetarik egongo da (**magia, umorea, sorpresak**.) eta primeran pasatuko dugu. **Gorritxo, Doraemon, Shin Chan, Rufus galtzagorria, Olentzero, Tor magoa eta Zuri** sorgin alaia gurekin egongo dira. **Sarrerak bi euroan** izango dira salgai, eta **Jauregiko webgunean eros daitezke**. Gainera, **sarrera batzuk zozkatuko** ditugu Hiru3ko kideen artean. Adi egon!



OLENTZERO

Laster umeek gogokoen duten eguna helduko da, Olentzero gure etxeetara opariak ekartzen etortzen den eguna. Baina **abenduaren 23an, Olentzero** ikusi eta berarekin argazkiak ateratzeko aukera izango dugu **EiTBren Bilboko egoitzan, 12:00etatik 14:00etara**. Idatzi al diozu **gutuna?** Gure **webgune berezian** idatz dezakezu, baina, horrez gain, **Gabonetako kantak** ere baditugu bertan, eta **'Olentzero eta subilaren lapurreta'** filma ikusteko aukera, eta beste hainba gauza. Sartu eta gozatu!

ZINEGABONAK

Aurtan ere, **Zinegabonak** ekimena jarriko da matxan EITB eta Zineuskadiren eskutik, umeek zinemas goza dezaten euskaraz. **EiTBren Bilboko egoitzan**, hiru film ikusteko aukera izango dugu **abenduaren 28an, 29an eta 30ean**: **'Marko makako'**, **'Asterix jainkoen egoitza'** eta **'Dragoi Bola Z: F Berpiztua'**. Sarrera doan izango da, baina izena eman behar da gure webgunean. Plan bikaina Gabonetako oporretarako!



IBAIZABALEN AZAROKO LIBURUA ZOZKATU DUGU

Iaz egin genuen bezala, aurtan ere, **Ibaizabal** argitaletxearen **liburu bat** zozkatzen ari gara **hilero**, hilabete horretan urteak bete dituzten Hiru3ko kideen artean. Zerrenda osoa ikusteko, **Hiru3ko** web orrira jo! **Azarokoa** zozkatu dugu, eta **ARRATE RODRIGUEZ VIVANCO** izan da irabazlea. **"Zonbi parkean harrapatuta"** liburua jasoko du. **Zorionak, Arrate!**

